



BARREN

TOKIKOM

Estibarizen azken pintzelkada



LANGABEZIAN DAUDENENTZAKO IKASTAROA
LANBIDEREN DIRU-LAGUNTZAREKIN

MERKATU-IKERKETARAKO LAGUNTZA

(Gaztelaniaz izango da ikastaroa)
Asistencia en la investigación de mercados (Comercio y marketing)

Profesionaltasun agiria - Iraupena 430 ordu - Azaroaren 23tik ekainaren 3ra arte

BALDINTZAK:

- N.A.N edo N.I.E izatea
- Lanbiden izena-emanda egotea
- Gazteleraz idazten eta irakurtzen jakitea
- Gutxieneko titulazioa edukitzea edo froga bat gainditzea

OHARRA

- Debabarreneko biztaleek lehenetasuna
- Iraupen luzeko langabetuek lehenetasuna

Ikastetxea: MEKA Lanbide eskola - Arregitorre,2 - Elgoibar
Harremanetarako: 943 748 019 - prestakuntza@meka-elgoibar.net

BARREN AZOKA

URRIAK 9 barriakua

17:30-19:30 - Kalebarren plazan

BARAZKI ETA FRUTEKIN EGINDAKO IRABIATUA

- ◆ Merkatuan erosketak egin
- ◆ Edalontzia apaindu
- ◆ Fruta eta barazki irabiatua egin

URRIAK 16 barriakua

17:30-19:30 - Kalebarren plazan

PINTXO LEHIAKETA

- ◆ Merkatuan erosketak egin
- ◆ Osagai ginekana (froga ezberdinak osagai bereztak lortzeko)
- ◆ Pintxoak prestatu





JABI MUÑOZ

“Asilo eskubidea Mendebaldetik ihes egiten ari da”

Nire buruak, Rafa, munduan zehar noraezean dabil-tzan milioika desplazatu eta errefuxiatuen zergatiaz idatzi beharko nukeela eskatzen dit, eta batik bat, gai honetan Mendebaldeak duen arduraz; baina hausnarketa hau irakurlearentzat uzten dut. Nik alderdi solidarioari buruz idatziko dut gaurkoan. Berlingo harresia jausi (eraitsi) zene-tik, 25.000 km. harresi eraiki dituzte. Asilo eskubidea Mendabal-detik ihes egiten ari da. Humanismo eta elkartasunezko Europa ilustratuak ez ditu nazioarteko legeak betetzen: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 14. artikulua, besteak beste. Asilorik ez badago, ihes egitea eta bizia jokoan jartzea besterik ez da gelditzen. Dei efektu maltzur horretaz ahaztu, eta behar efektuaz hitz egin beharko genuke.

Errefuxiatu eta etorkin kategoriak sortzea ezin da sekula onartu; errefuxiatuak direla babes dezagun: Mendebaldeak sortutako gu-

detatik, miseriatik, ingurumen arazoetatik, genero arrazoienga-tik... ihesi datoz. Munduan 50 guda inguru daude deklaratura eta 1.000 miliotik gora pertsona muturreko pobrezian bizi dira; horietatik %70 emakumeak dira, beraz, egin kontuak, eta kuotak. Kuotei buruz hitz egiten badute, guztientzat izan daitezela; ez du zentzurik Europak hatzamarrez aukeratutako siriar, kurdu, afganiar edo irakiarren kuotak enkantean atera-tzeak eta beraien aurpegiak Marokoko harresien kontra estu-tzen dituztenak edo Libiako kostaldean beraien txanda iritsiko zain daudenak alde batera uzteak. Kuoten zenbatekoak lo-tsgarriak dira: 10.000 biztanleko errefuxiatu bat; hau da, Debabarrenak zazpi pertsona jasoko lituzke, solidaritate adi-bide itzela, ezta? Europa esklabu enkante erraldoi bat da: aukeratzen bazaituzte, bizirik jarraituko duzu; bestela, hilik zaude.



RAFA RUEDA

“Etor daitezen behar dugu, eta ez da gustu kontua, ezta solidaritatea; behar kontua da”


Jembe baten hotsak frontoiaren pareten kontra burrunbatzen, eta han zeuden begiraleen aurrean are iskanbila handiagoa ateratzen zuen danbor jotzailearen irribarre distiratsua. Hau zen aurreko ostegunean mendaroarren aurkitu zutena; dan-tza afrikarra egiten zuten musikariak ziren. Orduan, migrazioari buruz eta European momentu honetan gertatzen ari denari buruz pentsatu nuen; beldurrean oinarritutako politika kontserbatzailea jarraitzen duten hainbat iritzitan, non fenomeno honetan aukerak ikusi beharrean, mehatxuak ikusten dituzten. Baiezta-pen (edo iritzi) hauek zaharkitua dagoen gizarte batek egiten ditu, bere egoerak berak beldurra eman beharko lioken gizarteak. Euskal Herria, jaiotza-tasari dagokionez, ilarako azken postuetan dago. Agian, Eus-kal Herrian ez dela larrurik jotzen esaten duen mitoa arazo horren oinarrian dago, edo agian arazo hau ez dago konpontzerik nahiz eta gu geu Duracell untxietan bihurtu. Gauzak honela, 0,8 seme-

alaba familiako izanda (belaunaldi ordezkapena bi seme-alabe-tan dago) gizarte hau zaintza intentsiboan sartzen hasia da, eta gainera, luzerako. Irtenbidea argia da: etor daitezen behar dugu, eta ez da gustu kontua, ezta solidaritatea; behar kontua da.

Gauzak aldatzen ari dira, eta mundua gauza bat den hei-nean ez da kanpo gelditzen. Horretaz jabetu nintzen frontoian nengoen egun batean. Haur talde bat futboleko zebilen talde desberdinetako kamisetak soinean zituztela: Athletic, Real, eus-kal selekzioa... Gaztelania zen jaun eta jabe momentu hartan. Baina egoera aldatu zen, eta denak euskaraz hitz egiten hasi ziren Moha iritsi zenean, soilik euskaraz hitz egiten dakien 8 urteko mutiko pakistaniarra, Espainiako selekzioko kamiseta jan-tzia zuela. Irudi paradoxiko horrek xuxurla fin bat atera zuen nire ahotik: “Mendaro aldatzen ari da, eta hau geldituko duen jainkorik ez dago”.

EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Memoria eta izaera

Afrikatik Europara, Mexikotik Ameriketako Estatu Batuetara, edo orain, Siriari inguruko herrialde-tara abiatzen direnak edozer gauza jasateko gai dira gutxieneko segurtasun baten bila eta onartzen dute duintasun sozialik gabe bizitzea zeharkako begiradak jasanez, euren bizitza egunero jokoan ez izatearen balioa ezagutzen dutelako. Biziraupena jokoan dagoenean ez dago hausnarketa posiblerik, aurrera egitea da bide bakarra, atzean ez

“Biziraupena jokoan dagoenean ez dago hausnarketa posiblerik, aurrera egitea da bide bakarra, atzean ez baitago ezer”

baitago ezer.

Amerikarrek hain modan jarri duten krisi post-traumatikoa batzuek inoiz izango ez duten luxua da. Horretarako "etxera" itzuli behar da, edo etxe berri bat sortu, zeurea sentitzen duzun leku bat, zainduko zaituzten pertsonak dauden lekua.

Gonbidatzen zaituztet, zuen auzoan, herrian egunero topatzen duzun "etorkin" horri begietara begiratzen eta momentu batez aurrean nor duzun behatzera, bere historia entzuterara. Itxura, janzkera, hizkuntza, bizimodu ezberdina duen horri izena eta izana jartzera. Horrela erdi-isilean aipatzen ditugun herriko "beltzak", "moroak", "ijituak" etab. bihurtuko dira nire auzoko Moussa, Fatima, Gissela edo Oumou. Eta pertsona bihurtzen ditugunean antzekotasunak ikus ditzakegu, geuk ditugun kezka, nahi eta ametsak dituztela ikusiko dugu: geure familia sostengatzeko modu bat, lasaitasunean bizitzeko leku bat eta errespetua eta anaitasuna eskaintzen digun komunitate bat.

Bitxia da gure memoriaren funtzionamendua, inoiz pentsatu duzue nola auto-erregulatzen den?

Batzuetan pentsatzen dugu burua gaitzen ari garela zerbait egitea ahaztu zaigunean, baina hori saturazio seinale izan daiteke. Sailkapen sistema oso konplexua dugu, app-rik konplexuena. Osotasunean erantzuten die egoerei; aurre egiteko eta elaboratzeko ezintasuna nabari bezain laster gertaera izoztua gelditzen da, eta memoriaren gela ilunean gordetzen da.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainara Argoitia **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:

elgoibarko
IZARRA

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► OHARRA

Urriaren 12a jai dela-eta, datorren barixakuan, urriaren 16an, ez da BARRENik izango. Hurrengo alea urriaren 23an argitaratuko dugu. Dena den, BARRENeko bulegoa zabalik izango dugu datorren astean, goizez, 15:00ak arte.

Barren

► ELGOIBARKO GAU KROSA

Idatzi honen bidez, Mintxeta Atletismo Taldeak eskerrak eman nahi dizkie Elgoibarko Udalari, Udal Kirol Patronatuari, eta nola edo hala, beraien laguntza eskaini duten guztiei: Marcajes Telleria, Astigarraga etxea, Txarriduna, Usua Taberna, Tantaka, King-Kong, Salento, Iriondo Taberna, Jai-Alai, Kaiku, Zahor, *El Diario Vasco*, Coca-Cola, Baqué, Gurutze Gorria, El Corte Ingles, Netto, La Pera, Arruabarrena, Telepizza, BARREN eta Sanlo Eskubalo Taldeari.

Elgoibarko herriari ere eskerrak eman nahi dizkiogu ekitaldiaren antolatzaileei eskainitako laguntzagatik, baita gure herrira lasterketan parte hartzera eta ondo pasatzera etorri ziren atleta guztiei egindako harrera beroagatik ere.

Herriko Gau Kroseko xedea hauxe izan da: Nazioarteko Juan Muguerza Kroserako dirua biltzea, lortutako IAAF maila handi honi eusten jarraitzeko. Horregatik, lanean jarraituko dugu 2016ko urtarrilaren 24a arte, LXXIII. edizioaren egunean Mintxetan elkar ikusiko dugun itzaropenez.

Mintxeta Atletismo Taldea

► ZORIONAK, USURBIL!

Pasa den domekan Usurbilgo Uda-rrigi ikastolaren aldeko Kilometroak jaietan izan nintzen. Tarteka euria egin

bazuen ere, gustura ibili nintzela ezin dut ukatu. Antolatzaileek lan bikaina egin zuten. Zorionak guztioi!

Era berean, Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartea ere txalotu nahi dut. Igandean izugarrizko lana egin zuten ehundaka boluntariok bertan sortzen ziren hondakinak jaso eta gaika sailkatzen, aurretik prest zituzten edukiontzietara botatzeko.

Zero Zaborreko lagunen kontsigna hondakinak lurrean azaldu ahala biltzea zen, bukaera arte dena ez piltzen uztea. Zikinak zikinari deitzen diola, menturaz garbiak garbiari.

Heldu zein gazte askok Usurbilen ikasi dugu hondakinetatik zer non laga behar den. Ez dago horrelako ingurumen tailerrik, ez hain onik, are gutxiago hain merkerik. Zorionak, Usurbil!

A.I.Z

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingariak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitz argitaratuko.

'Beitxu, beitxu!' rumba doinuko kantua aurkeztu dute eta euskararen "manifestu baikorra" egin

Elgoibarko Euskarak 365 egun taldeak *Beitxu, Beitxu!* kantua aurkeztu du. Aitor Novak egin du musika eta Uxue Alberdik hitzak.

Lipdub baterako kantua izanik neurri egindako doinua dela esan du Aitor Novak. "Luzea eta alaia izan behar zen eta hortara egokitzen saiatu naiz. Rumba hartu dut oinarri eta ukitu latindarrak eman dizkiot perkusioarekin. Gainera, kantua gogoraeraza izan dadin, tarte bat errepikatuko da ahotsarekin, haize instrumentuekin, dultzainarekin...".

Uxue Alberdik elgoibartarrok geure herriaz eta geure buruaz izan dezakegun autoirudiarekin jokatu nahi izan du abestiaren letrarekin. "Askotan entzuten dugu gure herria zatarra dela, ez dela erakargarria... eta uste dut horrek gure autoestimuan eragiten duela herritar eta euskaldun moduan. Euskararekin berdin gertatzen da: badaude beren euskaraz edo euskalkiaz harro dauden herriak, beren esapideak, musikaltasuna... estimatzen dituztenak, are, haietaz harro daudenak. Ez dakit Elgoibarren ez ote gabiltzan autoestima beharrean alde ho-



Iban Urizar, Aitor Nova eta Iban Guinea.

retatik ere". Horregatik, gure euskararen eta herriaren aldeko "manifestu baikor eta festazale moduko bat" idatzi nahi izan du. "Orain hain modan dagoen ahalduz ariketa bat egitea izan da nire asmoa".

Herriko musikari eta kantariak

Kantuaren grabaketan musikari elgoibartarrak aritu dira: Alfonso Guillo (kontrabaxua), Patxi Zabaleta (gitarra), Aitor

Nova (pianoa, saxofoia eta dultzaina), Naia Membrillera (Kajoia), Gorka Mujika (perkusioa), Iban Urizar (tronpeta) eta Iban Guinea (tronboia). Abeslariak, berriz, Nerea Gil, Garazi Ayesta, Haritz Arrieta, Iban Urizar, Aitor Nova, Selestina Mealelei eta Cosmin Liviu Iga izan dira.

Azaroaren 28an kantu honekin lipdub-a egingo dute, eta Josu Mujika arduratuko da hori prestatzeaz.

Urpekaritza ikastaroa antolatu dute nerabeentzako Gaztelekuak eta Urbizi elkarteak

Urbizi urpekaritza elkarteak eta Gaztelekuak, Udalaren babesarekin, doaneko urpekaritza ikastaroa antolatu dute 1998 eta 2003 urteen artean jaiotako nerabeentzat. Joan zen ikasturtean bataio saioak egin zituzten eta nerabeen artean arrakasta izan zutela ikusita, berriz antolatu dute ikastaroa, eta oraingo saioetan gehiago ikastea da helburua.

Saioak Gaztelekuan eta Olaizaga kiroldegiko igerilekuan izango dira urriaren 16an, azaroaren 22an eta abenduaren 20an.

Urriaren 16an izena ematera eta informazioa jasotzera joan behar da Gaztelekura 18:00etan eta Urbizikoek aurkezpena egingo dute. Joan ezin direnak, gaztelekuko hezitzaileekin jarri beharko dira harremanetan.

Urriaren 23an, berriz, izena eman duten nerabeen gurasoek baimena sinatu beharko dute 19:00etatik 20:00etara. Urpekaritza praktikatzeko baimen berezia da hori, beraz, egun horretan ere Urbizikoak Gaztelekuan egongo dira. Izan ere, ezinbestekoa da gurasoek argi edukitzea nerabeek ikastaroan eta batik bat igerilekuan egingo dutena.

Txankakuak banatu ditu 100 euroko sei sariak



Txankakua elkarteak stock azoka jarri zuen zapatuan Leku Ederren eta eguraldia lagun jende asko gerturatu zen 19 merkatarik jarritako postuetan erosketak egitera, produktu gehienak beherapeneken baitzeuden. Gainera, Txankakuak 100 euroko sei erosketa txeke zozketatu zituen azokan eta honakoek jaso zituzten sariak: Jesusa Odria, M. Jose Sandoval, Marian Blazquez, Nekane Carascosa, Maria Galdos eta M. Elena Arregi.

Lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko mintegiak, 10 urte



Hizkuntza-kudeaketa enpresan eta lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko 30+10 mintegiaren 10. edizioa izan da asteon IMHn. 10 urteotan 150 hizlari eta milatik gora entzule izan ditu mintegiak eta aurtengoan 10 urteko gaokoak eta hurrengo pausoak aztertu zituzten mahai-inguruan enpresa eta hizkuntza munduko hainbat eragilek. Enpresetan lan praktikak euskaraz egiteko proiektuaren hirugarren fasea aurkezteko ere baliatu zuten mintegia, eta enpresetan hizkuntza-rekin lotuta lantzen diharduten sei praktika onen berri ere eman zuten.

Kantu Eguna izango da urriaren 31n

Elgoibarko Kale Kantariak Kantu Eguna antolatu dute urriaren 31 rako. 11:00etan, Kalegoen plazan, salda eta txorizoa eta bazkarirako txartelak banatuko dituzte. 20 euro da bazkaria eta erretserba urriaren 23a baino lehen egin behar da ES56 2095 5036 50 9114251107 kontuan dirua ingresatuz eta izena adieraziz. Eguna kantuz alaituko dute 12:00etan Kalegoen plazatik abiatuta kaleak kantuan zeharkatu eta Maalan bazkaldu ondoren, kantu eta dantzarik ez da faltako. Informazio gehiago nahi duenak deitu zenbaki hauetara: goizez 687 216 766 (Ana) eta arratsaldez 688 687 838 (Iñigo).

San Migel jaietako zenbaki saritua 5.422 da

Aiastiako San Migel jaietan txekorra zozketatu zuten jaien antolatzaileek. Zozketan saritutako zenbakia 5.422 da –ordezkoa 4.660–. Zenbakiren jabeak 15 eguneko epea izango du txartela erakutsi eta txekorra eramateko. Txekorra nahi ez badu, trukean 1.300 euro jaso ahal izango ditu.

Zabalik dago 'Tertuliak' programan izena emateko epea

Euskaraz berba egin nahi baina erraztasunik ez daukatenei euskaraz jarduteko aukera eskaintzeko, urriaren amaieran hasiko da beriz *Tertuliak* programa. Lauzpa-bost laguneko taldeak osatu –bakoitzean euskaraz ondo dakien bat– eta astean ordubetz elkartuko dira euskaraz jarduteko. Programa doan da, eta urriaren 23ra arte eman daiteke izena Elgoibarko Izarran (943 741 626), AEK euskaltegian (607 601 423) edo Udal Euskaltegian (943 742 731).

Ospitalean elkarretaratzea egin dute Debabarreneko Unitate Sanitario Integraleko erizaintza zuzendariaren kargugabetzea salatzeko

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) Erizaintza zuzendaria kargugabetu dutela-eta, astelehenenean Mendaroko ospitaleko gerentziaren aurrean elkarretaratzea egin zuten ospitaleko zein eskualdeko hainbat osasun zentrotako zenbait erizain, erizain laguntzaile eta zaintzailek.

Ospitalean zaratarik atera ezin zuten, bertaratutakoek gutun bana aurkeztu zuten eskatuz kargugabetzea bertan behera uzteko. Gutun horretan besteak beste azpimarratu dute Osakidetza esaten duela erizaintza dela sistemaren bizkarhezurra eta hauen funtzio eta betebeharrak garatu behar direla. Beraz, ez dutela ulertzen nola ESI honetako zuzendaritzak "amen egin dien botere talde baten presioei" eta hasierara bueltarazi dituzten "oso kompetentea" den langile profesional hori kenduz.

Erizainen sindikatutik, Satsetik, honela esan dute: "Nerea Larrañagak erizaintza funtzioak garatzearen eta erizainei eskumen gehiago ematearen alde lan handia egin du. Baina badira Osakidetzaren baitan beste talde batzuk, sendagileena esaterako, ez datozenak horrekin bat erizainok funtzio batzuk hartuz gero beraien lanpostuak kenduko dizkiegula uste baitute".

Erizaintza zuzendaritza zuzendariaren gain, zuzendari alboak eta unitateko ikuskatzaileek osatzen dute, beraz, zuzendaria babesteko, talde guztiak eman du dimisioa. "Izan ere, emakume hau lanbidearen baitan irudimen askokoa da, ikusten zuen lanbidearen noranzkoa eta betikoan gelditu ez gaitzen gure betebe-



harrak nola garatu behar ditugun. Hori da Osakidetza aldarrikatzen duena, baina gero betetzen ez duena", esan du Satsetiko Gipuzkoako idazkari Pilar Mendiak.

Hurrengo pausoa zein izango den ez dakite, baina momentuz erizaintzako zuzendaritzan ez dago inor. Mendaroko Ospitaleko gerentziatik eta Osasun Sailatik ez digute oraingoz gai honi buruz ezer jakinarazi.

Errosario kalera jende ugari gerturatu zen joan den astean, jaien aitzakian



Errosarioko ama birjinen omenezko salbearekin eta mokodua eginez amaitu zituzten Errosario kaleko jaiak eguaztenean. Jai girorik ez da falta izan barixakutik hasita. Amabirjina lorez apaindu eta umeek jolas, txaranga eta buruhandiek gozatu ondoren, helduen txanda izan zen. Igelaren jokoan, Roberto Merino izan zen irabazle eta bigarren postua Ruperrek eskuratu zuen, lehia estuaren ondoren. Jaiak eta otorduek sarritan bat egiten dutenez, afaritan ia 40 lagun elkartu ziren. Zapatuko ezpata-dantza eta herri kirolak ikustera ere gerturatu zen jendea. Asteleheneko txokolatadan herritar asko joan zen Baltasar elkarte ingurura arratsaldea gozatzera. Errosario Kaleko bizilagun eta merkatari batzuk zozketarako txartelak saltzen ibili dira jaietan barrena eta zozketa hilaren 13an egingo dutela jakinarazi digute jaien antolatzaileek.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Aita Agirreko zabor edukiontzia, Againezka: “Argazki hau behin eta berriz errepikatzen da Aita Agirre plazako inguru honetan. Zabor edukiontzia gainezka egoten dira, eta ez da itxura. Ez dago honetarako eskubiderik. Lotsagarria da. Normala gero erraustegiaren beharra izatea”.



Pilarreko sarrera, arriskutsu: “Pilarreko joateko bidegurutzea oso arriskutsua bihurtzen da goizero. Pilar ikastetxetik jaisten diren autobusak ezin pasa egoten dira, beheko zatian batez ere. Une horretan udaltzainenek batek egon beharko luke hor trafikoa zuzentzeko eta ezbeharririk ez gertatzeko”.

Ubitarten katu ugari, gaixorik: “Ubitarten katu pila bat daude, eta gainera, gaixorik. Azala zatika jausten zaie. Kaka egiten dute kalean, eta ondoren gure haurrak bertan ibiltzen dira jolastan. Hori gutxi balitz, bizilagun batek jaten ematen die. Iruditzen zait irtenbide bat eman behar zaiola kontu honi.



Sallobenterako bisitarekin gustura: Irailaren 28an, Haizea emakume taldeak antolatuta, ibilaldia egin genuen Sallobenteko auzoan barrena. 40 laguneko taldea elkartu ginen eta Pello Arrieta historialariaren eskutik auzoko historia eta txoko bereziak-argazkia atera genuen Arostegi baserriko iturria, esaterako- ezagutzeko aukera izan genuen. Beraz, parte hartu genuenok Haizeakoak eta gidari izan genuen Pello Arrieta eskertu nahi ditugu arratsalde polita pasarazi zigutelako.



Txindurri-Iturrirako irteerarekin pozik: Guraso talde bat gara, eta txalo bero bat eman nahiko genioke Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisaldi taldeari joan zen zapatuan Itziarko Txindurri-iturri sagardotegira antolatu zuten txangoagatik. Gure seme-alabak oso gustura ibili ziren eta animatuko genituzke halako irteera gehiago antolatzera.

“Iparraldean, kausitzen baldin baduzu probintzian ez zara puntako kultur egilea”

▶ **ANTTON LUKU** IKERTZAILE, DANTZARI ETA ANTZERKIGILEA

Antton Luku (San Frantzisko, AEB, 1959) idazle eta antzerkigile behenafartarrak go-goeta sakona bezain zorrotza egin izan du euskal kultura deitzen dugun horren eta haren transmisio eta berreskurapenerako oinarriez, besteak beste ‘Euskal Kultura?’ eta ‘Libertitzeaz’ liburuetan. Hilaren 14an, asteazkena, ‘Iparraldetik dator haizea!’ zikloan parte hartuko du Elgoibarren, Miren Artetxe bertsolariarekin batera (Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan). Horren harira egindako elkarrizketa duzue hau.

- AINARA ARGOITIA -

♦ Zer dakigu Hegoaldeko Iparraldeari buruz?

Nik uste dut ez dela hemen pasatzen dena hain ezaguna, baina uste dut Hegoaldea deitzen dugun espazio horretan ere badirela leku batzuk ez direnak Donostian edo Bilbon hain ezagunak. Erran nahi dut badirela tokian tokiko praktikak eta horiek ez dutela difusio handirik, eta izatekotan, aipamen gisa bakarrik eta jendea konformatzen dela horrekin. Gero ez dakit hain gaizki den hori edo hobe litzatekeen gauza biziki uniformea izatea, gauza bera izatea Euskal Herri osoan. Baina soilik Iparraldez ari gara ere gertatzen da hori. Ez dut uste Xiberuan pasatzen diren gauza guztiak ezagunak direnez Baionan.

♦ **Uniformaltasun hori ez dela behar-bada ona, baina dugun eten horrek, Iparraldez ari garela lurralde hori adibidez Tarnosen beharrean Hendaiaren hasteko joera horrek, esango du bada zerbait gure kulturaz, ala?**

Hasteko, uste dut gu geu erratzen ga-



rela anitz hortaz hemen. Egoten gara estatu frantsesean eta han kultura biziki egituratua da; erran nahi dut identitatearena zutabe sakona edo azkarra dela han, eta difusatzeko mementoan, beti espazio frantsesa hartzen dutela unitate gisa. Euskal Herrian nola ez den botere bateraturik, nola errealitate ezberdinak diren, nik uste dut saihestezina dela hori. Bakoitzak, tokian tokiko jendeak, egiten dute berena eta beren komunikatzeko ahalen arabera

izaten dira edo ez. Penagarria da hori, gauza interesgarriek batzuetan ez dutelako tresnarik egiten ari direnaz jakinarazteko. Nik uste dut kulturak egituratzen duela populu baten pentsaera, praktika eta bizia, eta ez bada batere ezaguna, eta ez badakigu auzoek zer egiten duten, zerotik hasten garela.

♦ **Iparraldean ere sortzen den guztia ez da beraz kultur ekoizpentzat hartzen.**

Frantses sisteman, ez. Kultura periferikoa da gurea, gutxitua. Erran nahi dut noizbehinka baino ez direla interesatzen gure gauzez, baina edozein gisatan, euskal kulturaren denek dakite hori. Gurea bezalako kultura periferikoak zapalduak dira; nomenklaturan, bigarren mailakoak.

♦ **Hasier Etxeberriak zioen Iparraldean kultura frantsesa oso liluragarria dela, eta han, Parisera begira jartzea irabaztea dela, Hegoaldean Espainiara begira jartzea galtzea den hein berrean. Kolonialismoa, asimilazioa...**

Hori bizi bazara Frantziako estatuan, mugaz Iparraldean, begibistakoa duzu. Hemen norbaitek nahi baldin badu karrera egin kulturaren, behar du kausitu Parisen. Uste dut ez dela Euskal Herriko berezitasuna hori, baizik probintzia guztietakoa. Kausitzen baldin baduzu bakarrik probintzian, ez zara puntako kultur egile bat. Oraingo politika-agenteentzat tokian tokiko kausipena lortzen baldin badute haiek lagundu dituzten proiektuek, erdi porrota da. Antzerkian adibidez, behar da Aviñonen kausitu, horrek ziurtatzen duelako difusio bat Frantzia mailan, eta idealenean, Parisen.

♦ **Horren harira Etxeberriak honela zioen zuri buruz gurean: "Oso erradikala da Luku, baina pena bakarra dela. Berea egiten du. Berea eginez egiazko magma bat lortzen du bere parajeetan. Egin ditzakeen tokian egiten ditu bereak, oso leku marjinaletan. Eta jakina, horrekin ezin du inor salbatu. Eredu bat da Luku, baina bere ahalak mugatuak dira. Benetako agente kulturala da".**

Bai, nik ikusten dut nonbait arrazoi duela, baina gertatzen da guk abertzaleok, euskaltzaleok, sortu ditugula egitura batzuk gurearen salbatzeko, baina zer gertatzen da? Ene ustez negoziatzen dutelakotz zentroarekin, sartzen direla zentroaren lurrikaran. Ez dakit erran ahal dugun traizio bat denez hori, baina egia da ez dutela egiten guk eskatzen dugun kultura. Zer gertatzen zaizu horren oharitzen zirelarik? Pentsatzen duzu konben-

tzitzea, baina ezin duzu. Orduan hautatzen duzu zeure bidea, eta nik hautatu dudana bidea formakuntzarena da, pentsatzen dudana behar dudalako komunikatu. Ni izana naiz hogeitaz gazteekin, baina bai, egia da, hori gutti ezaguna izan dela, eta bai, arrazoi du bazterrean bazterrean ibili naizela diotenean eta hori beharbada porrota dela.

"Tokian tokiko jendeak egiten du berena eta komunikatzeko ahalen arabera badira edo ez"

♦ **Berak ez zuen porrotik aipatu. Kulturaren baloreak zintzo zaintzen dituzula esan zuen eta pena duela zure ahal hori ez dela iristen urrutiagora.**

Nik uste dut hori lotua dela zure lehen galderari. Erran nahi dut guk hemen egiten duguna ez dutela ezagutzen kostaldean, baina uste dut sortu dugunak baduela paradigma baten balioa, eta, ene ustez, errepikagarria dela hori kostaldean edo non-nahi; alegia, tokian tokiko kulturaren oinarrituz egiten ahal dugula geurea, eta euskaraz. Ez dakit eredu behar duen izan, baina bada esperientzia bat gurea, errepikagarria dena. Arazoa da gero kultur jendeak ikusten duen beren funtzioa horretan ala ez. Dena den, ez dut uste denik hainbesteko porrota. Uste dut badirela gazteak pentsatzen dutenak gure lana hori dela, kultura komunikate-egituratze bat dela. Nik uste dut ideia hori aski ongi pasatu dela kostaldean ere, baina gertatzen da gero behar direla jendeak eta hori beste kontu bat dela.

♦ **Dantzatik zatoz zu. Esana duzu dantzan bazela euskararekiko arazo bat, zaharrek dantzarekin zuten harremana eta zuek zenutena ez zela bera, eta**

enigma hori argitzera sartu zinela antzerki munduan. Zer da topatu duzuna?

Hemen gertatu dena izan da folklorizazio prozesuak bahitu duela dantza, eta uste dut ezin dela kontra egin nonbait dantzak baduelako estetika bat. Orain, bideogintzak ere gauza bera egiten du. Bai turismoa eta bai bideogintza biziki irudi gose dira, eta ez dakit kalte bat denez ere, baina Iparraldean gertatu izan da 1950. urtetik eta lehenagotik ere bai, dantza izan dela turistifikazioaren jomuga; bahitua izan da dantza, eta dantzariak ere ez dute izan formakuntza ideologikorik kontra egiteko. Egin dute dantzan plazerez eta nik ez dut neor kritikatzen historio horretan. Gertatzen da gero guk ukan dugun dantza esanahiz hustua zela. Dantzarien formazioa testuinguru horretan egiten delarik, erran behar da formatu direla laster, behar zirelako, baina beste ekoizpen guztietan gertatzen den bezala, kalitatea apaldu da kuantitate handian egin nahi izan delarik. Gertatzen dena da antzerkiak hemen beste bilakera bat ukan duela. Nola ez zen interesgarria delako gauza horientzat, euskaltzaleek egin dute antzerkia beste helburu batzuekin: berena erraiteko, patxadaz... Gu dantzari ginelarik, bi errealitate ezberdin ziren dantza eta antzerkia, eta ene ustez, nire belaunaldiko guztiak ohartu dira gauza horretaz: antzerkia dela autentikoagoa, egiazkoagoa, lasaiagoa. Barre gehiago egiten zen antzerkian, talde izpiritua azkarragoa zuen... bilatzen genituen gauzak antzeman errazagoak ziren antzerki munduan.

♦ **Beharbada transmisioak hobeto funtzionatu du antzerkian?**

Ez dakit, ez baitzen horrenbeste pentsatua antzerkian ere; aski enpirikoa zen han ere, baina pentsatzen dut lasaiagoa zela.

♦ **Galdetu dizut transmisioaz ari gara askotan esaten delako transmititzea ez dela ezagutza edo teknika pasatzea bakarrik; hau da, espezialitate horren inguruko giroa edo filosofia ere zabaldu behar direla.**

Bai, eta uste dut inportanteena giro hori transmititzea dela. Euskararen gaira

ekarrita, hori begibistakoa da. Euskara eskolako kontu bihurtzen badugu, jai dugu, eskolako gai batekin ez dugulako disfrutatzen. Lotu behar dugu euskara plazarakin. Antzerkia hemen zinez lotua zen aisialdiari, lagunei, asteburuei, giro onari eta horrek egiten zuen oso erakargarri. Falta bazen norbait paper txiki baterako, sartzen zen herriko beste bat taldean ate txikitik, eta jendeak oso ongi hartzen zuen berehala. Jendeak onartzen zuen pertsona horrek ez hain ongi antzeztea ere; taldea zen garrantzitsua.

♦ Iruditzen zaizu asmatzen dugula transmisio moldean?

Ez. Bada, zinez, erreflexio bat emateko horretan. Eta ez dut uste irakasleen edo hezitzaileen afera denik hori; euskaldun guztiok behar dugu pentsatu zer haur, zer gazte nahi dugun, eta nola nahi dugun transmititu hori. Uste dut curriculumaren parte dela hori eta denen erantzukizuna dela. Iruditzen zait gaur frantsesek pentsatzen duten bezala pentsatzen dugula gehiago: merkatu bat, profesional batzuk, publiko jakin bat... Eta nik ez dut horrela ukan euskal kultura eta ez dut horrela ikusten. Eta, noski, nahiago dut transmititu ukan dudana molde horretan eta ez beste era berri horretan, bestenaz uste baitut horrek ekarriko duela jendearen desengaiamendu bat; jendeak utziko duela bere erantzukizun kulturala batzuen eskuetan eta hori kaltegarria dela luzerat.

♦ Azpimarratua daukat zure esan bat: "Hegoaldean badute nazioa duten kontzientzia bat, eta Iparraldean euskara dugu aberri". Ze indar dauka euskarak Iparraldeko kultur adierazpenetan?

Adibidez antzerki munduan, ni hortan sartu nintzelarik, neork ez zuen duda egiten antzerkia euskararen espazioa zela. Guk garrantzitsu ditugun gauzak euskaraz erraitea zen antzerkia. Eta uste dut izan dela gauza bera dantza, musika, bertsolaritza... dena berdina zela memento batez, baina gero espezializatu nahi izan zela, eta hori dena zela urtu dantza munduan. Sistema zaharra

jarri behar da martxan.

♦ Iparraldea, eta prezeski antzerkia, beti lotu izan da folklore batekin, baina era berean, antzerki herrikoiena, biziena, ere hor egiten duzue. Nola uztartzen da modernitatean herrikoitasun hori? Badago herrikoitasuna eta modernitatearen eten hori ala justu kontrakoa da: herrikoa den hori da modernitatearen ikur?

Nik uste dut gatazka hori Iparraldean ere badela, eta antzerkian bertan badirela bi tendentziak: batzuek pentsatzen baitute euskal antzerkia egiteko behar dela apaiz bat, gerlaria... Azken finean, Larzabalen kopia txar bat egitea dela euskal antzerkia egitea, eta badira, ene ustez, eta nik hala erreibindikatu dut, gure antzerkia Larzabalen ondoko bat bezala ikusten dutenak, Larzabalek beti tratatu baititu mementoan mementoko eta tokian tokiko gaiak. Gero, sortzaile bakoitzak bere forma ematen dio, noski. Bestetik, delako forma tradizionalak, adibidez pastorala, oso arraroak izaten ahal dira Hegoaldean. Xiberoan bakarrik egiten dira, informazio oso gutti ateratzen da Xiberotik, eta guk ere oso gutti dakigu. Eta hor aipatu nahi nuke izan den polemika handi bat. Ez baitute hartu Behokarainen testua, baizik frantsesetik itzulitako beste bat. Nik uste dut frogara aski argia dela hori esateko badela Xiberuan jende kategoria bat kontsideratzen duena pastorala folklore huts edo udako jostagune bat bezala, eta euskara ez dela hor aitzakia bat baizik.

"Bada Xiberuan jende kategoria bat kontsideratzen duena pastorala folklore huts edo udako jostagune bezala"

♦ Aire ahizpak ere ekarriko ditugu gura. Betiko kantutegiak aurrera egiteko bidearen erakusgarri izan daitezke.

Kantuaz ari garela zaila da moderno zer den esatea. Moderno-moderno diren horiek, erran nahi baita sare internazionaletan ibiltzen diren horiek, inspiratzen dira biziki tokian tokiko musiketan. Orduan, oso moderno da orain *a capella* egitea, eta Ez Dok Hamahiruren garaian, berriz, ez bazenuen gitarrarik ez zinen moderno. Nik uste dut zinez pil-pilean dela gai hau, zeren eta badira anitz kantari Iparraldean pentsatzen dutenak honela: 'Nik egiten dut kalitatezko gauza eta ez naute galdegiten kantuz aldatzerat'. Eta galdegin ahal da: hori folklorikoa da? Zer da modernoa? Benito Lertxundik *Berrian* aipatzen zuen behar litzatekeela beste Ez dok Hamahiru bat. Uste dut badela eskas bat gure orainkortasuna antzemateko, baita kantuan ere. Galderak egiteko garaia da.

♦ Besteentzat putza izan arren, nortasun kultural baten alde egitea defendatzen duzu. Ez zaizu iruditzen, baina, askotan gure taldeak oso harrapatuak daudela eurena egiteko? Kultur agenteen oso menpe daudela?

Bai, geure nortasun kulturalaren alde egin behar dugu. Ni konbentzitu naiz euskalduna naizela eta ez dut deus frantsesen edo espainolen kontra, baina ni euskalduna naiz, eta ditudan galderei erantzuna ematen die praktika horrek. Bizitzeko molde bat da, filosofia bat.

♦ Lasaiago bizitzeko modua emango du behintzat norberak norberana egiteak.

Bai, bai, baina gero badira jendeak oso lasai direnak, ez baitute horren beharrik.

Elgoibarren zein mezu zabaldu nahiko zenueke, baina?

Nik badakit dantzari nintzelarik lileratu nindutela biziki Hegoaldeko kultur jendeak eta nonbait pentsatzen dela Iparraldean mantendu dela halako kultura garbi edo betiko bat. Nik uste dut tokian tokiko praktikan dela afera hori, eta bakoitzak egin behar duela berea.

Maite Maiora hirugarren Hong Kong-eko Lantau 2 Peaks-en



Arg.: Scott

Distantzia ertaineko mendi lasterketen Munduko Kopako laugarren proba jokatuz, domekan, Txinako Hong-Kong hirian. *Mujigae* tifoia baldintzatu zuen lasterketa, ez ordea Maite Maiora mendarokorren korrikarako gogo. Zailtasunak gaintuz, hirugarren postua lortu zuen 2:51:19ko denborarekin. Yngvild Kaspersen norbegiarrak egin zuen denborarik onena (2:42:04) emakumezkoetan eta bigarren Laura Orgue kataluniarra sartu zen helmugan 2:49:58ko denboran. Hirugarren postuarekin pozik, baina poz handiagoa zuen korrikalariak eraman ahal izateko indarra zuten ur jauziei, haize ufada indartsuei eta eskailera jositako ibilbide irristakorrei aurre egin eta bizirik irten izanagatik. Maiorak Munduko Kopa irabazteko aukera izango du bi aste barru Italian jokatuko den azken proban. Kopako sailkapen nagusiko lehen postuan zela joan zen Txinara eta orain hirugarren postuan dago 322 punturekin. Txinan bigarren egin zuen Laura Orgue kataluniarra dago lider 364 punturekin eta 350 puntu dauzka bigarrenak, Elissa Desco italiarrak. Italian jokatuko da azken proba (Limonc Extreme) urriaren 18an eta han erabakiko da zein den munduko txapelduna.

Futbolak hartu zuen Aita Agirre plaza



Joan zen asteburuan 2004, 2005, 2006 eta 2007. urteetan jaiotakoek futbol partidak jokatu zituzten Aita Agirre plazan 10:00etatik 12:45ak bitartean. Guztira 50 umek parte hartu zuten plaza. Hona hemen talde argazkia.

Emaitzak

FUTBOLA

Zarautz 2 – Haundi 1
Elgoibar 2 – Zarautz 1 (Erregionala)
Elgoibar 5 – Burumendi 0 (Jubenilak)
Beasain 1 – Elgoibar 1 (Kadete A)
Lagun Onak 3 – Elgoibar 2 (Kadete B)
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 2 (Lehenengo inf.)
Elgoibar 2 – Arrasate 3 (Infantil txiki)

ARETO FUTBOLA

Segorbe 4 – Concepto Egile 6 (Nazional B)

ESKUBALDIA

CB Salud 33 – Lauko Elgoibar 20 (Sen. neskak)
Usurbil 26 – Alcorta Forging Group 34 (Sen.mut)
Gabaz Elgoibar 21 – Eibarko Haritza 20 (Sen.mut)
Aiala Zarautz 24 – Tecnifuelle 17 (Jub. nsk.)
Beristain Banaketak 33 – Amenabar Zarautz 11 (Jub. mutilak)
Aiala Zarautz 25–Pneumax 24 (Kadete neskak)
Bankoa Elgoibar 46–Bergara 18 (Kadete mutilak)
Deca Elgoibar 54–Bidasoa 8 (Kadete mutilak)
Pulpo 19–Cometel Elgoibar 18 (Infantil neskak)
Murgil Elgoibar 27–Arrasate 11 (Infantil mutilak?)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMHko kiroldegian)

Domekia, 10
18:00 Concepto Egile – Fuenmayor

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 10
10:00 Elgoibar – Arrasate (Ohorezko infantilak)
12:00 Elgoibar – Urki (Lehenengo kadeteak)
17:00 Haundi – Oiartzun
Domekia, 11
12:30 Elgoibar – Reala (Ohorezko kadeteak)

ESKUBALDIA (Kiroldegian)

Zapatua, 10
11:00 Murgil – Eibar (Infantil mutilak)
16:00 Astigarragan – Leizaran (Kadete neskak)
17:45 Lauko – Beti Onak (Senior neskak)
19:30 Alcorta – Tolosa (Senior mutilak)
Domekia, 11
10:00 Pneumax Elg. – Usurbil (kadete neskak)
11:30 Tecnifuelle – Usurbil (Jubenil neskak)

Urriaren 18an jokatuko da Debarreneko BTT Martxa


Urriaren 18an jokatuko da Debarreneko BTT Martxa, eta urriaren 16ra arte egongo da izena emateko aukera, *Kirolprobak.com* webgunean. Bi ibilbide izango dira aukeran: 25 kilometrokoa eta 45 kilometrokoa. Irteera eta helmuga puntua Elgoibarko Mintxeta Kiroldegia izango da.

Zaindariaren hegaldia

Angiozarko San Migel zaindaria Itziarren amaitu du bere hegaldia aurten, pinadi batean, sastraka artean kateatuta, eta Enekoitz Lazarobaster mendarorarrak lagundu dio lurreratzen. Angiozarren ohitura dute urtero-urtero panpina zeruratzekoa, baina Mendaron inork gutxik zuen honen berri. Ezustekoa izan da topatu duenarentzat ere, "ezusteko bikaina". "Adis-kide fina" egin du dagoeneko panpina, eta aitortu du pena ere ematen diola entregatzeak, baina egiten duenerako prest dute Angiozarren ordaina eta ez dago hari ihes egiten uzteko prest. Bideoa ikusteko: www.barren.eus.

- AINARA ARGOITIA -

Jakinminak saria ekarri dio Enekoitz Lazarobasterri. Eta ez edonolakoa, gainera: 150 euro dirutan eta Angiozarko jatetxe batean bi lagunentzako otordua irabazi ditu, modu benetan bixian. Irailaren 30ean gertatu zen, San Migel biharamunean. Goizean goiz lanera sartu zenean, 7:40 buelta horretan, zortzi bat puxika ikusi zituen tailer pareko mendi hegalean, pinudi eta txara artean kateatuta. Begi aurrean zuen hura zer izan zitekeen asmatu ezinda eman zuen eguna, harik eta 17:00ak aldera, bakar-bakarrik, inguru hartara gerturatzea erabaki zuen arte. Aitortu du goiz hartan erabili zutela jarduna enpresan, izan zutela txantxetarako tarterik, eta aldiro-aldiro begi-



ratzen ziela puxikei, gauza normala ez zen tankera hartuta. Halaxe, 17:00ak aldera, lanerako arropak kendu ere egin gabe, abantatu zen mendian behetik gora, lar eta sasi artetik. Basoan makina bat ibili egindakoa da Lazarobaster, ehizan eta perretxikotan besteak beste, eta ondo ezagutzen zuen ingurua bera ere, baina kosta zitzaion puxikak zeuden ingurura iristea. Ailegatu zen, hala ere, eta han ikusi zuen kapa gorri batean batutako panpin biboteduna, ezpata eta guztikoa. Papparrean ohar bat zeukan zintzilik panpinak, lau hizkuntzatan idatzita, eta honelaxe zioen euskarazko bertsioak:

“Ni San Migel naiz, Angiozar bailarako zaindaria. Gaur, 2015eko irailaren 29an, San Migel eguna, nire herritarrek zerua bidali naute berri onen mezulari. Aurkitzen nauek 150 euroko saria eta herriko jatetxe baten bi lagunentzat bazkaltzeko gonbi-



Arg.: Goiena

dapena jasoko ditu idatzi hau atzeko aldean agertzen den helbidera bidaliz”.

Es sinesteko kontua zen. Kontu guztiz berria zen beretzat Angiozarko San Migelena, eta une batez, inozo-inozo, txantxaren baten biktima izan zela ere pasatu zitzaion burutik, baina oharra eskuan hartu eta idatzia Angiozarko jai-batzordeak sinatzen zuela ikusi zuenean eta harremanetarako telefono zenbaki bat ere bazuela jabetu zenean, konturatu zen zortekoa zela. Kostata jaitsi zuen panpina arbolatik, askatu, eta han joan zen “sinestu ezinda moduan” tailerrera lehengo eta lagunengana gero. Angiozarren taberna izana zuen lagun itziartar batek kontatu zion San Migelen kontua eta orduan jakin zuen urteetako tradizioa zuela panpin haren zeruratzeak Angiozarren. Deitu zuen segidan San Migelek papparrean ekarri zuen oharrean agertzen zen telefono zenbakira eta uxatu zitzaizkion zalantza guztiak. Egia zen. “Orduan hasi zen katxondeoa. Pentsa, lankide bat tentatuta egon zen goiz hartan bertan haurrentzako puxikak biltzera joateko, baina inguru oso zikina zela eta ez zen azkenean ausartu, eta, jakina, biharamunean

jakin zuenean zer irabazi nuen, bota zituen bedeinkapen eder-rrak”.

Joan zen asteko martitzenaz geroztik kotxean darabil Enekoitzek San Migel laguna, batera eta bestera, eta erdi txantxetan aitortu du pena ere ematen diola entregatzeak. Joan zen asteko barixaku iluntzeko poteoan bat gehiago izan ziren koadrilan Mendaron, eta zeresana eman du herrian San Migel zaindariaren irudiak. Elkarrizketa honetarako bideoa grabatzen ari garela ere, begirik kendu gabe ditu hainbat herritar.

25 URTEKO TRADIZIOA

Jose Angel Mikeo Angiozarko auzo alkatea da, eta berak eman dizkigu kontu honen gaineko azalpenak. Irailaren 29an, 20:00etan zeruratu zuten San Migel eta handik hamabi bat ordura jaso ei zuen Enekoitz Lazarobasterren deia –Gehienetan hilabete batzuetara izan ohi da–. Berak argitu du Angiozar auzoa ezagutarazteko helburuz hasi zirela San Migelen irudira egindako panpina zeruratzen, orain 25 urte, eta ordutik, hiru-lau urtetan ez beste guztietan ekarri dietela bueltan. Ez du, hala ere, beti bidaia bera egin izan. “Haizearen arabera, batera edo bestera egiten du, eta haizearen indarraren arabera, bide motzagoa edo luzeagoa. Gehienetan, hori bai, Iparraldera egin izan du, urri buelta honetan sarri egiten duelako hego haizea hemen”. Eta Iparraldera eginda, jakina, itsasoan amaitzen du sarri auzoko zaindariaren irudiak. laz bertan, esaterako. Getariako arrantzale batek aurkitu zuen itsasoan. “Sarri topatu izan dute arrantzaleek”, esan du Mikeok. Helioz betetako zortzi-bederatzi bat puxikari lotuta zeruratu izan dute, haizearen

arabera hori ere, eta aieratzeak berak ikusmin handia sortu ohi du Angiozarren, batez ere gaztetxoenen artean. “Auzoko haur guztiak sartzen dira plazan sokari helduta, eta jaien bukaerako ekitaldi nagusia izaten da”.

Angiozarko mezua ahalik eta urrutien iristeko, komeni izaten da haize indartsua izatea zeruratzeko orduan, globoek aguro egin dezaten gorako bidea, lehertu aurretik. Eta egin du, bai, urrutira ere San Migelek, baita Euskal Herritik kanpora ere. Akitaniako Tolosaraino iritsi zen behin, eta Leongo (Espainia) Riaño herriko urtegi ertzean lurreratu zen



Arg.: Goiena

beste behin, Europako mendien gainetik hegan eginda. Aurten gure gainetik egin du hegan, Itziarreraino. Bide motza, beste batzuetan egin ohi duenarekin alderatuta. “Aurtengo panpina sinplegoa izan da, hegorik gabea. Normalean beti jartzen dizkiogu, baina aurten ez”. Lazarobasterrek eskertuko zuen honezkero hegorik gabea izatea aurtengoa. Edonola ere, sariari hegan egiten uzteko ez dago behintzat.

'12etan bermuta' eleberri inpresionista aurkeztuko du Jasone Osorok urriaren 14an

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Helduentzako lanik idatzi gabe 12 urtez egon ondoren *12etan bermuta* eleberriarekin agertuko da urriaren 14an Jasone Osoro idazle elgoibartarra, 12:00etan, Donostiako Botanika tabernan egingo den aurkezpenera.

Berta da eleberriko protagonista, eta bere bizitzaren errepa-soa egiten du. Idazlearen esanetan argumentua arrunta da, baina kontatzeko modua da ezohikoa. "Ez dauka logika narratiborik. Salto asko egiten ditu, esaterako, denboran. Gutako edozein etxean bakarrik dagoenean, eta batez ere krisi bat pasatzen, gure pentsamenduak saltoka etortzen zaizkigu burura. Botaka emozional bat dela esaten dut nik".

Kaos emozional horri nolabaiteko forma emateko kapituluak banatu du eleberria eta beretzat esanguratsuak izan diren pertsonekin berbetan ariko balitz bezala eskaintzen dio kapitulu bakoitza pertsona horietako bakoitzari. Kapituluak, berriz, parrafotan banatu ditu, eta bakoitzak sentazio bat, sentimendu bat, oroitzapen bat, hausnarketa bat... islatzen du. "Buruan baneukan zer-bait kontatu beharra, baina ez nuen topatzen modua, ahotsa, estiloa. Halako batean eskutara etorri zitzaidan Valérie Mréjen-en *Eau sauvage* liburua eta pentsatu nuen berak erabiltzen zuen estiloa dena da parrafoetan, modu nahiko kaotikoan, egokia zela nire lanerako". Bere lagun eta idazle Pako Aristik lan berria koadro inpresionista batekin parekatu duela esan digu Osorok: "Esan zidan koadro inpresionista bat gertutik begiratzuz gero, ez dela antzematen irudia, beraz, distantzia behar dela paisaia ikusteko. Beraz, liburu hau ere horrelakoa dela, parrafo bakoitza pintzelkada bat dela eta bukaeran paisaia emozional bat ikusten dela".

Norbere burua ikusi

Liburuan idazleak 12 urte hauetan bizi eta irakurri duenaren emaitza dago. Bere aurreko liburuetan bezala, hemen ere bera badagoela esan du Jasone Osorok, baina besteetan ez bezala oraingoan fantasiarik apenas dagoela. "Saiatu naiz zintzo jokatzeko eta gutako edozeinek dauzkan pentsamendu ilunenak kanporatzen. Badaude nik bizi izandako eta pentsatutako gauzak, nire erreflexioak, irakurri dudanetik ere asko dago eta erreferentzia literarioak ere badaude. Baina nik nahi nukeena da liburu honetan jendeak ez bilatzea hainbeste ni, baizik eta nork bere burua". Eta hein batean hori lortu duela uste du, izan ere, irakurri duen jendeak esan dio momentu askotan beraiek hori pentsatu dutela. "Batzutan badira konpartitzen ez ditugun gauzak oso norberarenak direla pentsatzen dugulako, baina hemen idatzita ikus daitezke. Kontatzen diren gauzak, bizitzak mugara eramanda egon arren, gauza askotan jendeak bere burua islatuta ikusiko du".



Bi irakurketa

Eleberria idazteko orduan, ideia solte horiek batzeko hainbat ari muturretatik egin du tira Jasone Osorok eta horretarako beretzat ederrak diren hitz fetitxeak erabili ditu. "Bermuta, betuna... bezalako hitzetatik abiatuta sortu ditut hainbat hausnarketa, pasarte edo bizipen".

Irakurketa jolas baten modura egitea proposatu du Jasonek. Nahiz eta hasieran nahiko arraroa dela iruditu, parrafo laburrak bata besteari jarraian daude eta erraza da irakurtzeko. Parrafoak lotzeak ez du garrantziarik askotan batak bestearekin ez dutelako zerikusirik. Baina bukaeran eramaten zaitu momentuak eta hariak josi eta paisaia emozional bat eratzen: Berta zergatik sentitzen da horrela? Zergatik dauka bere buruan gauza horiek guztiak". Hala ere, uste du bi irakurketa eskatzen dituen liburuak izan daitekeela. "Lehen, liburuaren erritmoa oso azkarra delako; eta bigarren, parrafo bakoitzak edo parrafo batzuk kontatzen dituzten ideiak sakonago irakurtzeko eta norbere buruan hontaz eta hartaz zer pentsatzen duan gogoeta egiteko aukera ematen duelako".

12etan bermuta norbere barrura begira irakurri daitekeen liburu bat da. Berez, hilaren 14an aurkeztuko badu ere, jadanik salgai dagoena.

Errotulazioa lanbide eta margotzea zaletasun

JOSE ANTONIO ESTIBARIZ MARGOLARIAREN ATZERA BEGIRAKOA



- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Gaur, urriak 9, hasi eta hilaren 25era arte ikusgai izango dira Kultur Etxean Jose Antonio Estibarizen margo lanak.

Atzera begirako erakusketa prestatzea Mari Jose eta Izaskun Estibariz Astarloa alaben ideia izan da. 1983an hil zen aita eta 2015ean ama hil denean margo lanak azalertzeko gogoia piztu zaie. "Etxea amak museo baten antzera zeukan aitaren koadroekin. Pena eman zigun lanak bere horretan gordetzea. 50 urtetik gorakoek, ingurukoek, agian ezagutu zuten aita baina beste askok ez. Hala ere, harrituta gelditu gara erakusketaren harira batek baino gehiagok esan digulako etxean baduela gure aitaren koadroren bat. Sentiendu asko piztu zaizkigu eta erakusketarekin zabalik dagoen liburu bat itxi nahi dugu".

Jose Antonio Estibariz eta Blanca Astarloa tolosarrak Sigmako lanak ekarri zituen Elgoibarrera. Margotzea zen Jose Antonioren zaletasunetako bat, eta besteak beste, oleoz zein luma-muturrez egiten zituen artelanak. Heraldika zuen gustuko eta abizen askoren irudiak egin zituen, erretratoak margotzen ere ona zen eta Euskal Herriko paisaia asko ere bazituen margotuta. Herbehereetako paisaiak ere asko gustatzen zitzaizkion eta Van Ghogen koadroen kopiak egiten zituen liburuetatik ere hartuta.

Koadro batzuk familiako eta lagunentzat margotu arren, saldu

ere egiten zituen. "Autopista egin zutenean, baserri asko bota zizutenez, garai hartan baserrien margolan asko egin zituen". Aubixa baserria bota ez arren horren erakusgarri Aubixaren irudia jarriko dute erakusketan.

Koadroak ez ezik muralak ere margotu zituen Jose Antonio Estibarizek. Besteak beste Analsan eta Ibai Ondo eta Jai Alai tabernetan. Antzerkian ere ibiltzen zen eta *El Caseriko* dekoratua berak margotu zuen.

Margoa zaletasuna zuen, baina Sigmako lana utzi eta zaletasuna eta lana uztertuz errotulugile hasi zen. Garai hartan ez zen gaur egun bezala letrak pegatu eta kitto. Opelen eta Olan egin zituen hainbat lan, Elgoibarko dendetako kartelak berak eginak ziren, baita Eibarko kioskoetako iragarkiak ere.

Errotulista lanak batean eta bestean egiten zituen, Bergararik hasi eta Mallabiara eta Itziarerraino. Autorik ez eta autobusez mugitzen zen batetik bestera. "Hala ere, herrian jende ezaguna izanik, askotan gelditu, nora zihoan galdetu eta jendeak eramaten zuen autoan. Pintura potea, hainbat pintzel eta oreka mantentzeko erabiltzen zuen makila eskutan hartuta ibiltzen zen.

Etxeko pasilloan eta sukaldean

Alabek lanean ere gogoratzen dute aita. Tailerrik ez eta etxeko sukaldean eta pasilloan aritzen zen. "Gogoan dut Armeria eskolarako, Espainiako printzea zetorrelako-edo, egin zuen pankarta bat. Gure pasilloak 13 metro zituen eta han zabaldua egoten zen. Beste behin Elgoibarko buruhandi bat konpontzeko eta margotzeko etxera ekarri zuen, eta sekulako sustoa hartu nuen eskolatik etxera sartu eta hura ikusi nuenean", kontatu digu Mari Josek.

Etxeko zein inguruko 65 bat lan jaso eta sailkatu ondoren 45-edo jarri dituzte ikusgai eta Pitxintxu dendako eskaparatea jartzen esku ona dutenez, erakusketa ere txukun prestatu dute. Arte horren parte bat aita emana izango dela uste dute. "Margotzeko agian ez, baina eskulanetarako zaletasuna utzi zigun aita oinordetzan. Hori sumatzen dugu, besteak beste, eskaparateak jartzerakoan. Koloreak nahasten ere erakutsi zigun eta banderak brodatzerakoan, itzalak... egiteko baliagarria da".

Lan gehienek badute jabea, baina besteak Elizara, Kultur Etxera... banatzea da beren asmoa, toki publikoetan jarri ahal izateko. "Ganbaran gordetzea zaborretara botatzearen pareko da".

Aitaren paleta ere gordeta dute oraindik eta erakusketa honekin azken pintzelkada emango diote bere oroitzapenaren koadroari.

*"Margotzeko agian ez,
baina eskulanetarako zaletasuna
utzi zigun aita oinordetzan"*

LANA.....**Eskaerak**

Etxeak, tabernak nahiz elkarteak garbitzen egingo nuke lan. Esperientzia daukat, eta autoa ere bai.

☎ 635 354 776

Etxeak zein portalak garbitzen edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interna moduan jarduteko prest.

☎ 632 175 172

Umeak edo behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko prest. Eskolako etxeko lanak egiten laguntzeko prest. Euskalduna naiz. ☎ 688 639 371

Sukaldari laguntzaile edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 636 882 838

Garbiketa lanetan edo adinekoak zaintzen orduka lan egiteko prest. Interna edo asteburuetan ez.

☎ 690 134 485/943 740 672

Garbitasun lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Esperientziarekin.

☎ 631 834 632 (Ana Maria)

Adineko pertsonak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bizita, kanpoan edo gabez. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 631 506 763

Ospitalean zaintza lanak egingo nituzke asteburuetan edo astean zehar, gabez.

☎ 642 636 525

Etxean bizita edo orduka etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. Nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia daukat. Ospitalean zaintza lanak ere egingo nituzke.

☎ 642 381 844

Pertsona arduratsua umeak zaintzeko prest. Erreferentziak dauzkat.

☎ 630 410 294

Gabez, zaintza lanak egingo nituzke, etxean zein ospitalean. Gidabaimena daukat. ☎ 631 343 232

Baserriko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 632 687 874

Pertsona euskalduna etxeko lanak orduka egiteko prest.

☎ 687 1143 707

Eskaintzak

Pertsona euskalduna behar dugu Mendaroko baserri baterako. Autoduna ☎ 688 649 596

Hoteleko harreraren lan egiteko pertsona behar da. Beharrezko da: euskara eta ingelesa jakitea. Kontuan hartuko da hoteleko harreraren esperientzia izatea eta frantsesa jakitea. Bidali curriculum: deba@aisiahoteles.com helbidera.

Enpresa mailako ingeles irakaslea behar dut. ☎ 688 639 371

Pertsona bat behar dugu LH3ko 3 umeri frantses eskolak emateko.

☎ 620 578 702

LH5 eta DBH4rako klase partikularrak etxean emateko pertsona behar da.

☎ 617 386 198

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu.

☎ 637 207 806

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan.

☎ 632 175 172

GARAJEAK.....**Alokairua**

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren.

☎ 688 687 820

Garaje itxia hartuko nuke Bernardo Ezenarron, Pedro Migel Urruzunon edo Maala inguruan. ☎ 636 275 639

Salmenta

Garaje itxia salgai Santa Klara kalean. 22 metro koadro dauzka.

☎ 943 742 895

OSPAKIZUNAK

1975. urtean jaiotako bazkaria urriaren 17an Belaustegin. Joan nahi dutenek 60 euro sartu beharko dituzte urriaren 13a baino lehen Euskadiko kutzako (Caja Laboral) kontu korronte zenbaki honetan: ES89 3035 0007 27 0070031823. Egunean bertan autobusa izango da 14:30ean Txan-kakua zubian Belaustegira joateko.

Mendaron 1955. urtean jaiotako kinto bazkaria egingo dute urriaren 18an Landa jatetxean. Interesatuak 55 euro sartu beharko dituzte urriaren 14a baino lehen Kutzabankeko kontu honetan: 2095 5054 00 911 536 1255. 13:00ean Mendarozabalaren bilduko dira eta bazkaria 14:30ean izango da. Oharra: diru sarrera egiteko orduan eraman kontu zenbakia. 1940. urtean jaiotako bazkaria, urriaren 31n, Sigma jatetxean. Joan

nahi izanez gero, 50€ sartu kontu zki honetan: ES62 3035 0007 2700 7113 1513. Meza izango da aurrez 12:30ean, Santa Klaran.

1985ean jaiotako bazkaria, azaroaren 14an, Sigma jatetxean. 12:00etan plazan elkartuko gara eta bazkaria 15:30ean izango da. Usua tabernan eman behar da izena eta 40 euroko ordainketa egin, azaroaren 1etik 10era bitartean.

1967ko kintoen bazkaria urriaren 24an. 12:00etan bolatokia elkartu, argazkia egin, gero lunch-a Viento Sur gastrotekan, eta ondoren bazkaria Sigma jatetxean. Interesatuak 60 euroko diru-sarrera egin beharko dute urriaren 20 baino lehen: 3035 0007 21 0071131362

Mila izenekoen bazkaria antolatu dugu eta egun polit bat pasatzeko gonbitea da hau. Azaroaren 23an "Milagro" egunez 13:30etan kaperan elkartuko gara eta Txarridun bazkalduko dugu. Etorri nahi duenak azaroaren 20a baino lehenago deitu eta izena eman. Mila Juaristi 685 777 609 edo Mila Tudanca 689 781 069

BESTELAKOAK.....

Entrenatzailea behar dugu Mendaroko pilota eskolarako. Astearte eta ostegunetan izaten dira eskolak, 17:00etatik 18:00etara. ☎ 688 649 596

Trama markako sehaska salgai.

☎ 665 717 098

Bikientzat Candy Pear erako karroa salgai. Prezio onean. ☎ 606 340 632



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar

☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Jakin nahi nuke zein diren igogailuen mantenuaz arduratzen diren enpresen eginbeharrak.

Igogailua ez da zaindu gabe utzi daitekeen zerbitzua, izan ere, gaizki funtzionatuz gero, erabiltzaileak arriskuan leudeke. Beraz, igogailua jartzen den momentutik aldian-aldian aztertu behar da arazorik ba ote duen jakiteko edo konpontzeko zein ondo dabilela ziurtatzeko.

Ikuskapen egokia bermatzeko, bizilagunen elkarteek, kontratua sinatu behar dute baimendutako enpresa batekin. Kontratua firmatutakoan bi aldeek hainbat eginbehar bete beharko dituzte. Mantenu enpresarenak honako betekizun hauek dira:

- Instalazioa ikuskatu, mantendu eta berrikusi legearen arabera epe eta prozedurekin.
- Matxurak konpontzeko langile gaituak bidaltzea bizilagunen elkartetik deitzen den momentuan.
- Arazorik edo istripuren bat gertatzeko arriskurik sumatuz gero, zerbitzua etetea.
- Egindako administrazio azterketei dagozkien dokumentuak gordetzea.
- Egindako kontratuen alta eta baje berri eman administrazioan.

AHOLKUA: Bizilagunen elkarteak ere derrigorrez kontratatu beharko du igogailuaren mantenua baimendutako eta erregistratutako enpresa batekin. Gainera, aldikako beharrezko azterketak eskatu beharko ditu eta erabilera debekatu funtzionamendu arazoak daudenean edo mantenu enpresak aholkatutakoan. Azkenik, berehala eman beharko du gertatutako istripuen berri bai mantenu enpresari baita Industria Ordezkaritzari ere.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Manex**, urriaren 16an 8urte! Ondo-ondo pasatu eta muxu potolo bat maite zaitugun guztion partez.



Zorionak, **Ander**, astelehenean 8 urte egin zenituelako. Besarkada handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Mikel**, zure seigarren urtebetetzean Elgoibar eta Mendaroko familien partez, eta batez ere Noraren partez. oso ondo pasa, txirrundalari!



Zorionak, **Javier**, urriaren 4an zure urtebetetzea izan zelako. Familiakoen partez.



Zorionak, **Iker**, urriaren 1ean zure urtebetetzea izan zelako. Familiaren partez.



Zorionak, **Alain**, atzo urriak 8, 2 urte egin zenituelako. Familiakoen partez, eta bereziki, Naroren partez.



Zorionak **Oier Arriolari**, hamabosgarren urtebetetzean eta patxo handi bat Xabiren partez.



5 urte **etxeko piratiak!** Txutxerik bajaok? Zorionak, eta gominolazko muxuak.



Zorionak, **Aimar**, 6 urte gure etxeko txapeldunak. Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Home casat ruc espetilat. **Maite zaitut!** Luis.



Hemeretzi urteren ondoren, azkenik iritsi da gure eguna. **Maite zaitut!** Marian.



Zorionak, **Bidadz**, gaur 10 urte bete dituzelako. Ondo-ondo pasa zure egunean. Etxeko guztion partez.



Kaiet, 3 urte daganeko! A ze mutiko haundixa! Primeran pasatu zure egunian familixakuen, eta bereziki, Urkoren partetik.



Zorionak, **Manex**, atzo 4 urte bete zenituelako. Patxo handi bat etxeko partez.



Zorionak, **Malen**, 4 urteko neska handia! Muxu goxo-goxoak Leire, Luken eta Ekainen partez.



Zorionak, **Garazi**, zure bederatzigarren urtebetetzean, familia osoaren partez. Egun zoriontsua pasa, printzesa!



Eta igande honetan zure urtebetetzia. Zorionak, **Luken**! Ondo-ondo pasau zeure egunian. Bi muxu haundi Elgoibarko sorginen partez.



Zorionak, **Jairo**, 5 urte egin dituzelako. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Malen**, astelehenean 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familia osoaren partez eta batez ere Unaxen partez.




Zorionak, **Nahia**, urtebete egin duzulako. Muxutxo asko aitatu eta amaxoren partez.



Zorionak, **Iraia eta Aitor**! Biharko eguna zuekin ospatzeko irrikaz gaude. Muxu handi bat zuen lagunen partez.



Urtez urte zeuen arteko istorio ederra irudikatu duzue orri txurria zenaren gainean. Biharko ospakizunean irudi hori zeuekin batera koloretzatzeko irrikaz gaude.



Azkenean iritsi da zuen eguna! Ondo pasa dezazuela! Zure ahizpa, koinatua eta ilobaren partez.

LAN DEIALDIA

- ◆ Debabarrenean kokatutako enpresak tornurako langilea behar du.
- ◆ CNC (FANUC/SIEMENS Kontrolak) tornuetan programatzea eta piezak mekanizatzea.
- ◆ Kontrola eta egiaztapena.
- ◆ Planoak interpretatzea.
- ◆ CAD/DAM (GIBBSCAM) diseinua eta programazioa.
- ◆ Goi-mailako heziketa zikloa.
- ◆ Tornuan esperientzia duenaren froga-agiria.

Interesatuak bidali dezatela curriculuma tornulangilea@gmail.com helbide elektronikora

9 BARIXAKUA

18:00-20:00 Erakusketa. Mendaroko aire libreko pintura lehiaketako margolanak. Jubilatuen ondoko lokalean. Astegunetan, 18:00-20:00 eta astebukaeran 12:00-14:00 eta 18:00-20:00. Urriaren 12ra arte.

18:30-20:30 Erakusketa. Jose Antonio Estibarizen margoak. Astelehenetik ostiralera. Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. Urriaren 25era arte.

17:30 Merkatu plazako tailerrak Atxutxiamaikakoekin. Irabiatuak presatuko dituzte merkatu plazako produktak erabiliz. Urriaren 16an pintxo hotzak egingo dituzte. Kalebarren plazan.

12 ASTELEHENA

12:00 XXIV. San Pedrorra igoera. Zikloturistak. 4 km. Irteera: Kalegoen plazan. Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea.

13 MARTITZENA

18:00 Patinetan ibiltzen ikasteko astean ordubeteko ikastaroak. 5 urtetik gorako umeentzat. Mendaroko Goñati pilotalekuan. Informazio gehiagorako: 600 658 203 (Pili Villanueva).

14 EGUAZTENA

19:00 Hitzaldi-elkarrizketa: *Iparraldeko kultura*. Antton Luku Nafarroa Behereko euskal idazle eta antzerkigilea eta Miren Artetxe Lapurdiko bertsolari eta filologoa. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan. 'Haizea dator Iparraldetik!' egitasmoa.

15 EGUENA

15:30-16:30 Buruko gimnasiari buruzko tailerra. Ostegunetan, urritik maiatzera. Jubilatuen Biltokian. Izen ematea: 615 738 381 edo Jubilatuen Biltokian 11:00-12:00.

17 ZAPATUA

22:00 Antzerkia: *Erdibana*. Aktoreak: Jose Ramon Sorozio eta Iker Galartza Mendaroko San Agustin Kulturguneko areto nagusian. Sarrerak aurrez salgai: Morroskillon eta Roteta Dendan. 7 euro.

18 DOMEKA

09:00 Debabarreneko VII. BTT Martxa. Ibilbide laburra, 25 km. eta luzea 45 km. Irteera: Mintxetako Kirol Gunean.

12:30 Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda eta Inazio Bereziartua Musika Eskolako banda. Zuzendariak: Txomin Mujika eta Joseba Garmendia. Herriko Antzokian.

19 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako ikastaroak: 'Zoru pelbikoa'. Astelehenetan ordubeteko saiok urtarilaren 25era arte. 18:00-19:00 gaztelaniaz eta 19:00-20:00 euskaraz. Pedro Muguruzako eskola zaharretan. Doan (plaza mugatuak, izen emate ordenaren arabera). Izen ematea: Udalaren Arreta bulegoan, berdintasuna@elgoibar.eus helbidean, 943 74 10 50 (Elena Alonso) zenbakian edo Pitxintxu dendan.

20 MARTITZENA

17:00 Ipuin kontalaria: *Bertsol Haritza*. HH5 mailatik LH1era arte. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

23 BARIXAKUA

20:30 Antzerkia: *Windermere club*. Aktoreak: Teresa Hurtado de Ory, Natalia Millan, Javier Martin, Harlys Becerra, Susana Abaitua eta Emilio Buale. Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez salgai. www.kutxa.net webgunean eta Kultur etxean. Arruntak: 10euro. Ikasleak edo Gazte Txartela dutenak: 7 euro. Aurrez saltzen ez direnak lehiatilan

Nabarmenduak

TopaEguna

ETopaEgunaren laugarren edizioa antolatu du euskara elkarteek Topaguneak Titakun elkartearekin elkarlanean. Lasarten izango da urriaren 17an, larunbata, herriko Euskal Jaiarekin uztartuta. Euskaltzaleek antolatu edo parte hartzen duten esperientzien trukea, kantu eta dantza jira, bazkaria, haurrentzako jolasak, Irrien lagunen *Ane eta Piratak* ikuskizuna, txaranga, erromeria eta triki-pintxo-potea izango dira besteak beste.



Manifestazioa

Arnaldo Otegi aske uzteko eskatuz urriaren 17an, larunbata, manifestazioa izango da Donostian 17:30ean Bulebarretik irtenda. Autobuserako izena eman nahi duenak Lanbroa eta Iturri tabernetan edo Pitxintxu zein Garate dendetan du aukera.



Zinea (Herriko Antzokian)

'Ricki'

9 Barixakua, 21:30
 10 Zapatua, 19:00,
 22:15 (Jatorrizko bertsio)
 11 Domeka, 19:00
 12 Astelehena, 21:30



'Atrapa la bandera'

11 Domeka 16:30

'La visita'

16 Barixakua, 21:30
 17 Zapatua, 19:00,
 22:15 (Jatorrizko bertsio)
 18 Domeka, 19:00
 19 Astelehena, 21:30



'Los Minions'

18 Domeka 16:30

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

9 Barixakua FERNANDEZ
 10 Zapatua BARRENETXEA
 11 Domeka BARRENETXEA
 12 Astelehena GARITAONANDIA
 13 Martitzena GARITAONANDIA
 14 Eguaztena ETXEBERRIA
 15 Eguena FERNANDEZ
 16 Barixakua IYUDEGO
 17 Zapatua ORUESAGASTI
 18 Domeka ORUESAGASTI
 19 Astelehena BARRENETXEA
 20 Martitzena IBAÑEZ
 21 Eguaztena GARITAONANDIA
 22 Eguena ETXEBERRIA
 23 Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera
 GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udalzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa.....	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila.....	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea.....	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gazteleku.....	943 743 228
Enplegua-Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kiroldegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuen biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Jokalari Anonimoak.....	657 710 156
Alkoholiko Anonimoak.....	629 141 1874
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Correos - Posta.....	943 741 547
Mendaroko Udala.....	943 033 28
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Haurtzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi.....	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 80



Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian
 edo

www.barren.eus webgunean

943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus





Julen Ansola

Eider Iriondo



Bidea eginez, tren zaharkitu honetan naiz eta ondoan dut nire maleta hutsa. Hutsa, ni neu soilik, aski bai-naiz bideari ekiteko, ez dut ezer gehiago behar. Iparrorratza eta mapa alperrik dira norabiderik gabeko bidaia honetan.

Atsegin dut eserleku honetan jarri eta inguruan ditudan pertsonen bizimoduak imajinatzea. Nondik datozen, nora joango ote diren pentsatzea. Beraien bideak asmatzea. Atsegin dut leihotik begira jarri eta nire begiekin argazkiak egitea. Kanpoaldean dagoen mundua ikusten dut, itsasoaren hezurrak eta zelai berdeak bat egiten dute, itsaso barea ikusiaz lasaitzen naiz, olatu txikien bideak jarraitzen ditut eta zerura begira jartzean lainoekin bidaiatzen dut. Tunel beltzean sartzean nire begirada leihoan islatzen da. Aurrean dudan ezezagunari beldurrik ez dion begirada.

Norberak jartzen dio erritmoa tren honi, batzuetan azkarregi doan trenari, eguneroko bizitza hau bezalaxe eta geldiarazi egingo nukeena.

Trena geldiarazi eta lehen geltokian jaitsiko naiz amestera.

Amestu, nahi dugun hori irudikatzeko eta horrela ametsa egi bihurtzeko. Norabidez aldatu, azkartu, moteldu erabaki eta norantza zuzendu. Galdutako trenak berriz ez galtzeko edo tren berriak hartzeko.


Geure burua egiten goazela egia da, baina bestalde, egin, egiten gaituzte. Ni neu egin, egin naute, hasieran gurasoek eta familiak, inguruko lagunek eta pertsonen ondoren eta orain ni naiz bidaia honen gidari bakarra. Bizitza trena da, gozatzeko da bidaia, gozatzeko elkarrizketa bakoitza, gozatzeko besarkada bakoitza, gozatzeko muxu bakoitza.

Nire erabakia izango da nor nahi dudan bidaia-lagun eta nori nahi diodan oparitu goizeko lehen irribarrea eta norekin nahi dudan elkarbanatu gabe ilargi betea. Mundu zabal honetan nahi dugun lekura joan gaitetzke eta tren honek nahi dugun lekura eramango gaitu. Bizitza trena da eta honek amaiera bakarra du.

Bizimodu ezberdinak bagoi honetan elkartzen dira, bidaiatzen jarraitzen dugu uneoro, eta geltokiak ditugu begirada berriak eza-gutzeko. Gure esku dago bidaia, eta gure esku dago bide hau kolorez margotzea.

“Bizitza trena da, eta honek amaiera bakarra du”

Haizea dator Iparraldetik!



Elgoibarren Hirugarren Auzoa

atzak
taberna

San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

ORBE

PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenerdik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

*Ileapaindegi zerbitzua daukagu.
Dutzu ordua hartzeko.*

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK
AGURRAK
KINTADAK** **KARAOKE** arekin

ORDUTEGIA
7:30etik 22:00etara
Astelehen arratsaldeetan itxita
Igandetan erretserba eginez gero zabaik.

Sigma

jatetxea

"Berezitasuna EGUR-IKATZETAN"

Tel.: 943 748 531
675 708 160
sigma.jatetxea@gmail.com

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ARROZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutze-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

**MAR**
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



**BIENA S.L.**
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax: 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Armatagie  Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l.**
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 358

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

**ELECTRICIDAD**
AZPELETA

San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajl@gmail.com
Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**electricidad**
PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Bergain 17. AC behea
Tel.: 943 202 298
Faxa: 943 205 045
20800 EIBAR

Heriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 533
20860 MENDARA

**egoluz**
ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urasandi, 22 behea - Elgoibar
Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.

**IGELTSERITZA**
CAMILLO
ALVAREZ

Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA

**SANTANA**
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA**
ITURGINTZA
Heriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotai@pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

**ONGI** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

**FONTANERÍA**
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

TELLABIDE
ITURGINTZA



Azpilgoeta 7 behea - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzate.llabide@hotmail.com

ZUBIZARRETA
intalazioak

Ubitarte plaza, 5 behea
Elgoibar
943 740 789
650 586 144



**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com
ELGOIBAR

LEIHOAK

**LODOSO**
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

**BIOK**
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen
gida